

GUaiXE.eUS



Santa Luzia festa ospatuko da igandean Ziordian



Sakanerria >> 6

Herri kirol jaialdia Etxarrenen eginen da igandean



Kirola >> 13

Patxi Zubizarreta idazlea ostegunean Altsasun



Kultura >> 15



Jaiotzen erakusketa ikusgarria Olaztin

Ilbeltzaren 10era arte dago ikusgai

>>>6



Egibil harrobian urre koloreko iltzea jartzeko ekitaldia egin zen. Nafarroako Gobernuak, zientzien arloko eta enpresa munduko ordezkariak izan ziren bertan.

Irurtzungo Euskal Ekitaldiak, musikarekin aurrera

>>>15

Planetaren orri-markatzailea Olaztin

>>>9

Bihar Sakanako XVI. Xake Txapelketa Hiriberrin

>>>13

Andra Mari ikastola berriaren irekiera ekitaldian jendetza

>>>8

Amiantoak kaltetutakoen elkartea sortzeko ahalegina

>>>10

zozketa abenduaren 22an, 12:00etan

3 komertziotan zigilatu eta bulegora ekarri (Foru plaza, 23-1, Altsasu)

1. SARIA
2 lagunendako
2 gaueko egonaldia
lekua aukeran

2. SARIA
2 lagunendako
larunbat gaua txabola batean eta Finlandia saioa

BG txartela

nekatur

CAMPING ARTAZA

ZURE ZIGILUA HEMEN



EDUARDO SANTOS ITOIZ (PODEMOS)

Gaur, abenduak 11, 17:30ean, Gaiaxen **ON-LINE ELKARRIZKETA**
Bidali zure galderak www.guaxe.eus bidez

ezkaatza >>

>> **Etxarri Aranatz**

Aizkora Nazabalez mintzo da

Aurtengo urrian erabaki zuen Floren Nazabal etxarriarrak aizkora mundua uztea. Bizkarreko arazoen ondorioz Nafarroako txapelketako finala ezin izan zuen bukatu.

Larraitz Amadoz Lazkano

Oso gazte zela hasi zen Nazabal aizkora munduan, 5 urte zituela jadanik egur artean zebilen. Aita aizkolaria zuen eta hark eman zion kirol honekiko zaletasuna. "Beti ibiltzen ginenez etxeko aizkorekin gora eta behera egurra moztzen", halaxe azaltzen ditu bere bizitzako lehen urteak etxarriarrak. Lehengo jendeurreko erakustaldia 12 urterekin egin zuen eta 14 urterekin lehen aldiz anaiarekin batera Euskadiko Binakako txapelketan parte hartu zuen. Hasieratik arrakasta usaina izan zuen bere ibilbideak, lehen txapelketa hori irabazi zuelako.

Urduritasuna, traba

Aizkorarekiko zaletasuna eta maitasuna betidanik izan ditu, hortaz hastapenetan ere gustura aritzen zen Nazabal. Gaztaroan oso urduri jartzen zen, eta horrekin zertxobait sufritzen zuela onartu du. "Denborarekin urduritasuna kontrolatzen ikasi egiten da eta urteekin askoz ere hobeki eraman daiteke" dio Florennek. "Urduritasuna dela eta, txapelaren bat bidean geratu egin zait" adierazten du aizkolaria.

Txapelak

Txapelez, egurrez eta aizkorez inguratuta dago Etxarri Aranazko kirolaria. Aizkoraren munduan hainbat dira urtean zehar jokatzeko diren txapelketak, Euskal Herriko txapelketa nagusia, Nafarroako Banakako txapelketa, Nafarroako Bikotekako txapelketa, Bikotekako eta Banakako Urrezko Aizkora, Donostiako Kopa eta beste. 60 txapela gordetzen ditu bere etxean eta baita gurasoen etxean ere. Euskadiko lehen mailako aizkora txapelketa 2002an irabazi zuen lehen aldiz, eta harez geroztik txapela sei aldiz jantzi du txapelketa goren horretan. Nafarroako txapelduna, berriz, 9 aldiz izan da, eta horrenbeste txapela irabazi ditu parte hartu duen aldi oro.

Esfortuz eta txapelketa kuttunenaz

"Harrotasun handia sentitzen da Euskadiko txapelketa nagusia irabazten denean, hori irabaztea handiena da" aipatzen du txapelketen inguruan galdetzen zaionean. Ordu asko sartu ditu Nazabalek entrenamenduetan baita txapelketetan ere, eta horrekin batera sufritu izana ziurtatzen du. Ibilbide luze honetan esfortzu handia egin behar izan duela



Omenaldiak eta familia

Aizkora izan du esku artean betidanik Floren Nazabalek eta hemendik aurrera ere horrela jarraituko duela azaltzen du, nahiz eta txapelketetatik al egon. Mundu honetan sartu nahi duen edozein laguntzeko prest agertzen da, garai batean besteak beste Sakanako aizko-

ra eskolan aritu zen eta oso oitzapen onak dauzka garai hartatik. "Nire bizitza aizkora izan da eta horrela jarraituko dut hemendik aurrera ere". Familiak betidanik bere ibilbidea gertutik jarraitu du eta oso ongi eraman dutela dio Nazabalek. "Garaiaren arabe-

ra, batzuetan oso harro sentitu izan dira eta beste batzuetan nirekin batera ere sufritu izan dute". Nafarroako Gobernuak abenduaren 2an egindako ibilbidea guztiagatik ohorezko aipamena eman zion. Askok eskertzen du, bere apaltasuna gauza guztien ginetik islatuz.

"Nire bizitza aizkora izan da eta horrela jarraituko dut hemendik aurrera ere"

rentzat. Horretaz gain ere, oso onak izan diren aizkolaria asko izan direla aipatzen du Nazaba-

lek, baina Mindegiak esanahi berezia du berarentzat. Gaur egungo aizkolarien inguruan

Palmaresa

Euskadiko lehen maila edo maila nagusiko aizkora txapelketak: 6 aldiz txapelduna (2002, 2004, 2007, 2008, 2009 eta 2012).

Nafarroako lehen mailako aizkora txapelketak: 9 aldiz txapelduna (2001, 2002, 2007, 2008, 2009, 2010, 2012, 2013 eta 2014).

Nafarroako Bikotekako aizkora txapelketak: 8 aldiz txapelduna (1994. urtean Antonio Jaurarena bikote zuela, 1995. urtean Antonio Senosiain bikote zuela, 2002. urtean Juanjo Lopez bikote zuela, 2003. urtean Juanjo Lopez bikote zuela, 2005. urtean Juanjo Lopez bikote zuela, 2007. urtean Antonio Senosiain bikote zuela, 2010. urtean Jose Juan Barberena bikote zuela eta 2011. urtean Jon Recondo bikote zuela).

Bikotekako Urrezko Aizkolaria: 3 aldiz txapelduna (2001ean Jose Migel Pañagarikano bikote zuela, 2005ean Juanjo Erdozia bikote zuela eta 2007an Juanjo Lopez Azpilikueta bikote zuela).

Banakako Urrezko Aizkolaria: 9 aldiz txapelduna (2004an, 2006an, 2007an, 2008an, 2009an, 2010ean, 2012an, 2013an eta 2014an).

Aitzol Atutxa bizkaitarra aipatzen du, bera da aurtengo eta joan zen urteko irabazlea. "Aizkorak badu etorkizuna, urtetik urtera gazte asko ateratzen dira, eta zaletasuna badago". Aizkoraz bizitzea zaila dela dio, gastu asko ordaindu beharra dagoela, baina zaletasunak beti ematen ditu indarrak aurrera segitzeko.

BIKAIN GARAJEA, S.A.L.
948 460 037 Arbizu
948 468 441 Altsasu

Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA

Mekanika Elektrizitatea Txapa Margotzea

FLORES S.L.
Nafarroako berezko txistorrak izen bat du
Txistor ekologikoa

Uztubar Industriak - R.F. - Faxa: 948 460 499 4160320



Aingeru Mikeo

astekoa

Utopiaren ibiltaria

Aurreko batean, señorito espainiar bati entzun nion ezkerreko politikari bati buruz, gutxiespenez, Utopiaren ibiltari bat zela. Esaldi ederregia iruditu zitzaidan, beste nabardurarik gabe, aipatutako osbornetar, eskuindar, madrileza eta bibidoreak sortua izateko.

'Utopia', berez, ou 'ez' + topo

'lekua', 'ez den lekua', hitzez hitz. Thomas More politikari humanista ingelesaren fikzioan, jendarte baketsu bat bizi zen irla baten izena. Jendarte hark berdintasun ekonomiko, elkarrekiko balioak, eta denen ongia norberaren nahikeriaren gainetik jartzen zuen. Thomas Moreren kritika zorrotza garai

hartako gizarteari.

Harez geroztik bostehun urte pasatu badira ere, bizi dugun statu quo globalizatu honetan, hanhemengo irudiak gero eta larriagoak dira. Ardo botilari heltzen dion gizonezko zarpail abaildua. Emakumezko etxegabetuaren aurpegi negartsu etsia. Amaren bular idorrari hurrupa ari den

haur ahularen ezina. Bonbaz hildako amaren gorpuaren ondoan izaturik ageri den seme-alabaren negar lazgarria. Irudi zoritxarrekoak, halaxekoak!

Halere, batzuek sinetsarazi nahi digute horiek errealitatearen ezinbesteko irudi naturalak direla, beren erosotasunaren adierazle. Baina, ez! Pertsona

horiek ez dira bizi duten egoraren errudunak. Ez, horiek lukurreriaren biktimen irudiak dira, statu quoaren terrorismo zuriaren biktimak.

Bizitza duinerako eskubidea dutelako, utopia dira ametsak, elkartasuna eta irribarreak; horregatik, ez da iraina Utopiaren ibiltaria izatea.

barrutik kanpora

Elkartasun aukerak

Etixeraten, euskal preso eta iheslari politikoei ahotsa ematen diegu, bizi duten errealitate gordina lau haizetara zabaltzeko eta haien eskubideen kontrako urraketak salatzen ditugu. Paradoxikoki lan horrek berak utzi gaitu pairatzen dugun egoera ekonomiko larrian, hain zuzen ere, ahots hori isilarazi eta legez kanpo nahi gaituztenek gure elkartaren eta senideen ekonomia ito nahi baitute instituzioen diru-

laguntzak blokeatuz eta isunen bidez.

Gauregun, elkartaren diru-iturri nagusia bazkideen kuota da, gehienbat preso eta iheslarien senide eta lagunek ordaintzen dutena. Kontuan hartzen badugu hainbeste urtetako dispartsiak ekarri dien diru-galera izugarria, argi dago ezin zaiela esfortzu handiagorik eskatu. Beraz, Etixeraten jarduna ziurtatzeko, une honetan helburu nagusia

dirua biltzea da abian jarri dugun Etxerat Lagun kanpainaren bitartez. Hainbat bide dituzu Etxerat diruz laguntzeko. Esku-orria online betez, berau inprimatu eta posta arruntaz bidaliz, edota etxeratlagun@etxerat.info emailean zein 646 02 88 84 telefonoan gurekin harremanetan jarritz.

Dispartsiaren zama arintzeko laguntza guztiak eskergarriak badira ere, argi dago dispartsiaren kontrako irtenbiderik one-

na dispartsiaren amaiera dela. Abenduaren 10ean, Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna zela-eta, Etxeratek giza kateak antolatu zituen Baionan, Gasteizen eta Iruñean, *Dispartsiari Stop* leloarekin. Dispartsiari ezetz esateko beste aukera bat abenduaren 20an izanen dugu hautestontzietan dispartsi politikaren sustengatzen duten alderdien kontrako bozka emanez. Eta urtarrilaren 9an ere aukera paregabea izanen

dugu, Bilboko kaleetan, milaka lagun elkartuz, dispartsiaren kontrako ahotsa ozen entzunarazteko.

Dispartsiaren kontra, ez galdu aukera bakar bat ere!



Sakanako ETXERAT

hara zer dien

Berdinak al dira Parisen eta Sirian hildakoak?

Parisen gertatutakoa latza dela? Zalantzarik ez! Zer pentsa, eta zer aztertu eman diezaguke 8 pertsonen egin dutenaren inguruan: arma zein lehergailuak hartu eta ezagutzen ez duten jendea hil "Alláhu akbar" (Ala handia da) oihupean. Hori baino latzagoa da "Sirian egiten diguzuen egingo dizuegu" oihukatzea.

129 hildako eta 319 zauritutako utzi zituen Pariseko atentatuak. Hori ez dago oso urrun "zibiliza-

turiko" lurraldeek Siria, Palestina, Irak, Afganistan, Nigeria... bezalako lurraldeetan egiten dugunetik. Lurralde haietan, egunero hiltzen dira Paris bezalako 129 pertsona. Errugabeak denak. Haurrak, gizonak, emakumeak... egunero hilak. Haien errua? Han bizitza.

Zer egingo genuke Paris, Londres edota Madrilen egunero 129 gizaki hilko balira? Norainoko erantzuna emateko gai izango

ginateke? Petroliorik ez balego tarteko, berdinerantz gogon genduke? Haien herriak babestu nahi ditugu edota gupidarik gabe masakratzen ditugu? Ematen du mendekuerantzuna logikoa dela halakoetan, baina horrek ez du arazoa larritu besterik egiten.

Zer egin? Zaila da erantzuna. Agian zere zegin jakitea, asko litzateke. Izugarrikeria gelditu bai, baina horretarako zibilak, pertsona errugabeak hil gabe. Nola

ordea? Horretarako gastatzen da ba tonaka euro defentsan, ezta?

Eraginkortasun gehiago eska diezai egiteko hori dagokienei!!! Arma gehiago ez saldu, ezta sortzea ere, bada beste bide bat. Gure hipokresiarekin bukatzea den bezala. Halakoak egiteko arrazoiak, zentzuzkoak eta zentzuzgabeak dira.

Jar dezagun ba arreta arrazoi zentzudunetan. Gure agintariak mendekua defendatzen badute,

demokraziaren izenean gainera, honek ez du irtenbiderik. Nor da hemen zarpaila? Parisko hiltzaileak ala Siria bonbardatzen dutenak?

Parisko atentatua kondenatzea bezalako behar du izan egunero ehundaka eta milaka errefuxiatu sortzen dituen Ekialde Ertaina kondenatzea.

Bego Zestau, Sakanako Immigrazio Zerbitzua

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano,

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza, Larraitz Amadoz Lazkano eta Erkuden Ruiz Barroso

ZUZENTZAILEA: Patxi Flores

ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675

KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • bierrik@guaixe.eus

DISEINU ZERBITZUA: Guaixe komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.eus

ADMINISTRATIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • zorion@guaixe.eus

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995

TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK 

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hezkuntza Politikako Salburuordetza

AGURRA UHARTEKO ESKOLAN: Isabel Beitiak erretiroa hartu eta abenduaren 2an utzi zuen Uharteko eskola. 31 urtez irakaste eta 28tan zuzendaria izan da. Eskolako

komunitateak omenaldi sorpresa egin zion agurreko egunean. Guraso Elkarteak eta udalak esker ona azaldu zioten.

sakanerria >>

>> **Urdiain**

Lakuntzak Gazte Balioa saria jaso du



Oier Lakuntzak Barcos lehendakariaren eskutik jaso zuen saria. UTZITAKOIA

Nafarroako Egunaren ospakizun ekitaldien barruan, Uxue Barkos Berruezo presidentek aurtengo Gazteria Sariak banatu zituen. Sarituei zuzenduz, Barkosek adierazi zuen "balorearen, ahaleginaren eta eskuzabaltasunaren erreferentzia zarete". Izan ere, Gazteria Sariak saritutakoek egindako lanaren gizarte aitortza izan nahi dute. Sarietako bat, Gazte Balioa, Oier Lakuntzak jaso du.

Nafarroako Gobernuak gogorazi du urdiaindarrari 5 urterekin Wolfran sindromea diagnostikatu ziotela. Gaixotasun arraro eta endekapenezkoa, diabetesa ekarri dio eta ikusmena, entzumena eta

usaimena kendu dizkio. Lakuntzak Nafarroako Unibertsitatean Kimika ikasi zuen, promozioz bigarren espediente onena lortuz. Euskal Herriko Unibertsitatean Kimika Kuantikoa edo Teoriko eta Konputazionala ikasi zuen. UNEDen, berriz, Zientzia-Kazetaritzan eta Komunikazioan masterra. Bi urtez Kataluniako Zientzia Ikerketako Institutuan doktoretza ondorengo bi urteko ikasketak egin ditu. Euskal Herria Irratiako zientzia arloko gaietan kolaboratzailea, nazioarteko itzal handiko aldizkarietan Lakuntzaren artikulua argitaratu dituzte, eta bertso-laria da.

SAKANA

Generoa eta kulturartekotasuna lantzeko tailerra

Ostegun goizean izanen da, Mank-en Lakuntzako egoitzan. Asteartera arte eman daiteke izena

Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak "Ni-reatik Gureara, elkartasuna eraikitzen" tailerra antolatu du. Generoa eta kulturartekotasuna izanen da landuko dena, hainbat galderari erantzuna emanez: genero kontuetan non nago ni? Nola ikusten dut nire burua? Gai horien inguruan beste kulturetako pertsonak nola ikusten ditut? Arlo horretan zer egiten dut? Zer hobetu nezake? Nola?

Etorkinekin lanean ari diren gizarte zerbitzuetako profesional, udal langile, ludotekari, gazte teknikari eta toki erakundeetako langilei zuzendutako prestakuntza saioa da. Ostegun, 9:30etik 13:30era, izanen da, Mank-en Lakuntzako egoitzan eta Anafe fundazioak emanen du. Izen ematea asteartera arte egin daiteke info@sakana-mank.eus helbidera idatziz (izen-abizenak, nortasun agiri zerbakia, lanbidea eta mailaren berri eman).

SAKANA

Euskaraz produktuak oparitzeko laguntza katalogoa

Euskal Herriko 140 toki erakundeetako euskaraz zerbitzuek sustatzen dute *Euskarazko Produktuen Katalogoa*, Sakanako Mankomunitate barne. 18. edizioa karrikaratu dute, 120.000 ale, Euskal Herri guztian barna banatu direnak. Katalogo berriak gurasoendako eta 12 urte bitarteko haur eta gazteendako ehunka erreferentzia biltzen ditu, eguberri garaia seme-alabei edo ingurukoei euskarazko produktuak erosi eta oparitzeko aukera paregabea dela kontuan izanda. Katalogoak zazpi sail ditu: musika, liburuak, aldizkariak, DVD filmak, jostailu eta jokak, komikiak eta gurasoendako produktuak.

www.katalogoa.eus web orri berritan katalogoa urte guztian kontsultatu daiteke telefono mugikorretatik, tabletetatik eta ordenagailuetatik. Paperean jasotako produktuez aparte, merkatuan aurki daitezkeen euskarazko beste produktu asko agertzen dira.



Idazle, musikari, filmegileekin egindako elkarrizketak, haien inguruko albisteak, nobedadeak, iritziak, ikusi eta irakurtzeko aukera izango duzu webgune berritan. Aukera dago, gainera, argitaletxearen denda birtualera iristeko produktuaren gainean klik eginez eta, nahi izatera, begiz joko produktuaren erosketatik egiteko. Argitaletxeek eurek eguneratzen dute web gunea.

HURBIL DITUGU EGUBERRIAK. DENDA HOBERENAK ERE BAI

denda txikiak, pertsona handiak

Nafarroako Gobernua  Gobierno de Navarra

» Ziordia

Santa Luzia, jostunen zaindaria

Ziordian Santa Luzia eguna ospatzen dute domekan

Erkuden Ruiz Barroso

Ziordian, gaur egun errepidea eta igerilekuak dauden tokian, Santa Luzia ermita zegoen. Abenduaren 13an haren omenez erromeria egiten zuten. Santa Luzia ikusmenaren eta jostunen zaindaria da eta jostunentzako egun berezia zen abenduaren 13a. Ermita 1970eko hamarkadan eraitsi zutenean festa galduz joan zen. Ziordiko Udala berreskuratzeko lanak hasi ditu.

Begiak erretilu batean ditu Santa Luziak irudian. Luzia kristautasuna hasi berriko martiri bat zen. Sakrifizio moduan eskaini behar zutenean Luzia ezin izan zuten mugitu eta sorgina zela salata sutean hiltzera zigortu zuten. Baina Luzia ez zen erre. Hortaz, begiak kendu zizkioten eta Luziak begirik gabe ikusten zuen. Ondorioz, Santa Luzia ikusmen arazoak dituzten eta harekin zerikusirik dituzten ogibideen zaindaria da, besteak beste, jostunena. Ziordian jostunek aspaldi ospatzen zuten haien zaindariaren eguna. Hala esan digute Kontxi Cerdanek, Juana Mari Mugikak, Maribel Gonzalezek, Erkuden Izagirrek, Maria Jose Arresek, Gema Agirrek eta Edurne Casasek.

Ermita handia, hotza eta iluna zen. Erretaula soila zen, sinplea, eta hainbat eserleku zahar zituen. Horrela gogoratzen dute Ziordiko emakume jostunen taldeak Santa Luzia ermita. Gazteak zirela eraitsi zuten ermita, hortaz, Santa Luziaren egunaren ospakizunen oroitzapen gutxi dituzte. Istoria gehienak gurasoengandik jaso dituzte jostun taldeko kideek. Ermitara erromeria egiten omen zuten, mezan irudia besarkatzeko eskaintzen zuten eta ondoren zortzikoa dantzatzeko zuten. Alkateak dantzatu behar zuen zortzikoa, baina ez bazekien herriko dantzariak dantzatzeko zuten. Ondoren, herriko jostunak afaltzeko biltzen



Ziordiko joste taldean ari diren emakumeek ospakizunaren berri eman ziguten. ERKUDEN RUIZ BARROSO

Egitaraua

13:15ean Meza.

14:30ean Adinduen bazkaria, jubilatuen elkarte.

14:30ean Bazkaria, gaztetxean. (Baserritarrez jantzita).

16:30ean Maccrearen bakarriketa.

19:00etatik aurrera: Urbasa tabernan ogi-torradak; Etxaleku tabernan gaztaina erreak; Errekakartea elkartearen txokolate-jana izanen da eta, azkenik, gaztetxean sagardotan egositako txorizoa.

Trikitalari eta pandero-joleek egunean zehar ariko dira.

ziren. Beste herrietatik jende asko etortzen zela gogoratzen dute emakumeek, Altsasutik eta Olaztikit gehien bat. Gehienak ikusmen arazoak zituztela azaldu dute, baita jostunak joaten ziren ere. Oraindik ere Santa Luzia egunean jendea Ziordira joaten da.

Festaren desagerpena

1960ko hamarkadan trenbide-pasagunea kendu behar zen. Ondorioz, Ziordiko sarrera berria eraiki behar zen. Udalak garaian zegoen lekua naturalean jarri nahi zuen, baina Diputaziora diru-laguntzen eske joan zirenean han eginez gero diru-laguntzarik ez zela izango esan zieten. Hortaz, gaur egun sarrera dagoen tokian eraikitzea



Ziordiko Santa Luzia ermita 1971n zahar berritu zuten. Eraikin xumea zen eta kanpai-horman Sta Lucia ora pro nobis, año 1786 idatzia irakur zitekeen. 1797an gotzainak ermitako kontuetan 657 erreale eta 9 marabedi opatu zituen. 600 erreale ematea eta gainontzekoak sor zitezkeen ohiko gastuak estaltzeko erabiltzea agindu zuen.

erabaki zuten. Baina horretarako Santa Luzia ermita eta Kalbarioa bota behar zituzten.

“Bidea egiteko ez zen behar ermita botatzea. Ez zuen trabarik egiten”, azaldu du Edurne Casas Ziordiko Kultura zinegotziak. Ermitako harriak eta kanpandorra Zaldudondora (Araba) eramantzen zituztela adierazi du. Gainera, gaur egun Ziordiko elizan gordeztzen duten Santa Luziaren irudia

ez da benetakoa; Nafarroako Museoa omen dago originala.

1970eko hamarkadan bota zuten ermita eta ermitarik gabe festa galtzen joan zen. Ermita bota izana pena handia izan zela esan dute Ziordiko jostunek. Garai hartan haren garrantzia ez zutela ikusi azaldu dute, baina, gaur egun, atzera begira, “pena handia” da Santa Luzia eguna ermitan ezin ospatzea.

» Etxarri Aranatz

Gaztetxokoa hornitzeko laguntza eskatu dute

Etxarriko 12 eta 16 urte arteko gazteak Maixuen etxe zaharreko beheko solairuan euren txokoa dute. Lastailaz geroztik martxan dago. Ikastola zaharreko patioetik sartzen dira larunbatero eta igandero, 17:30etik 21:30era. Hezitzaile gazte batek du egitasmoaren ardura, eta tarteka tailerrak eta ekimen adostuak egiten dira.

Tokia bai, baina gaztetxoek hura jantzi eta hornitu beharra sentitu dute eta etxarriarrei laguntza eskatu diete oraingoan: “etxean erabiltzen ez dituzten gauzak baldin badituzte: sofak, mahaia, aulkia, besaulkiak, apalak, etxetresna txikiak, mahai jolasak, aisialdirako egokia den edozer gauza... jarri gurekin harremanetan. Berrerabili egiten ditugu, zalantzarik gabe!”

Harremanetarako

Udaletxera hots egin, 948 460 004, edo idatzi, udala@etxarriaranatz.eus. Haiek arduratuko dira gauzak jasotzeaz.

» Altsasu

Klinikako gimnasio hobetu da

Dantzaleku Sakana eta Sociedad Deportiva Alsasuak 2.500 euroko ekarpena egin dute

Josefina Arregi klinika psikogeriatrico gimnasioak abendu hasieratik tresna berria du. Haren bidez klinikaren egonaldiak egiten dituzten pertsonen hankak indartuko dituzte. Klinikako fisioterapeuta Josu Alustizak esan duenez, “makina berriarekin klinikaren artatzen ditugun gaixoen errehabilitazioa hobetuko dugu, euren gaitasun funtzionalak hobera egiten baitu”.

+www.guaixe.eus

» Olatzagutia

Jaiotza ikusgarriak

Ilbeltzaren 10era arte Olatzagutiako Sakanako Belenzaleen Egoitzan. Astelehenerdik larunbatera 18:00etatik 20:00etara. Domeketan eta jai-egunetan, 13:00etatik 14:30era eta 17:30etik 20:30era.

Sakanako Belenzaleen Elkarteak kideek dozena bat dioramaz osatutako jaiotza erakusketa du ikusgai bere egoitzan. Haietako batek Ziordiko kale batekin antza handia du. Katy Mayor, Javier Beunza, Luis Borrega, Jesus Mari Garmendia, Paco Sanz, Emeterio Galan eta Felipe Orabengoa izan dira jaiotza horiek landu dituztenak. Apiril hasieran hasi ziren 14. erakusketa osatzen duten jaiotzak prestatzen.

Asteartean mustu zen erakusketa eta elkarteko kideek handik Hego Euskal Herriko 3.000 pertsonatik gora pasatzea espero dute. Valentziako eta Madrilgo bisitariak ere hartuko dituzte. Bisitariak aurreko urteko hirujaiotza ikusiko ditu, baina elkarteko kideek eszenografia aldatu diete, itxura berria eskainiz. Erakusketako aurtengo berritasuna kortxo eta goroldioz egindako jaiotza bat da. 12 edo 13 urte ziren halako materialekin jaiotzarik egiten ez zutena.

Hain zuzen teknika horretan trebatzeko elkarteko kideek aditu madrildar batekin ikastaroa egiten dute

helduden urtean. Ohi bezala, porspana lantzeko ikastaroa eskainiko du udaberriaren elkarteak eta nahi duten sakandarrek izena emateko aukera izanen dute. Elkarteko kide egiteko aukera, berriz, erakusketan izanen da. Gaur egun 48 dira. Elkartetik Olatzagutiako Udalak emandako laguntza eskertu dute.

Zozketa

Erakusketara doazenean jaiotza baten zozketarako txartelak erosteko aukera izanen dute. Haren bidez, finantzatzen da elkarteak.



Guztia prestatzen burubelarri ibili dira Sakanako Belenzaleen Elkarteak.

» Altsasu

Altsasun euskaraz bizitzeko nahia

Estreinakoz Euskararen Egunean, abenduaren 3an, ekitaldia egin zen Altsasun. Eta beste urte batzuetarako hazia izateko nahia adierazi zen. Foru plazatik Zumalakarregi plazarainoko kalejira egin ondoren, han Altsasuko bertso eskolako Josema Leitza, Aritz Goikoetxea, Idoia Granizo eta Ekain Alegre bertso-tan aritu ziren. Musika lagun Iortia kultur parera joan ziren eta han hainbat irakaslek, ikaslek eta herri-tarrek euskara gaia zuten euskal idazleen testuak irakurri zituzten. Elkartutakoen talde argazkia egin ondoren egitaraua haurrendako zinema emanaldiarekin despeditu zen arratsaldean.

Haizea Ramirez de Alda euskara zinegotziak azaldu zuenez, Euskararen Eguna ospakizunetik du, "euskararen gizarte erakundeek lan handia egiten dutelako euskararen normalizazioaren alde". Baina aldarrikapenetik ere, "euskararen konpromisoa eta sustapena aldarrikatze eguna. Euskararen normalizazioa aldarrikatze goga da".

Erantzukizuna

Hizkuntzaren normalizazioan udalak erantzukizun zuzena duela gogorarazi zuen zinegotziak: "zentzu horretan, Udalak konpro-



Euskararen Egunean euskararen aldeko ekitaldi jendetsua hartu zuen Altsasun.

miso sendoak eta erabaki ausartak hartu behar ditu euskararen alde. Euskaldunon hizkuntza eskubideak bermatu behar ditu, euskararen arnaguneak (espazio sozial euskaldunak) bultzatu eta indartu behar ditu, herritarrengan euskararen aldeko jarrerak sustatu, hiztun berriak lortzen lagundu, euskarazko aisia sortu eta bermatu, eta abar".

Urteko egun guztiak euskararen izan behar zutela nabar-

mentu zuen Ramirez de Aldak. Erdaldunek duten paper garrantzitsua nabarmenduz. Eta gonbiteak luzatu zituen: "gonbidatzen zaituztegu euskaraz bizitzeko konpromisoa hartzera: dakienak edonon, edonorekin eta edonoiz erabiliz, erdipurdi dakienak euskara erabiliz eta hobetuz, eta ez dakienak euskara ikasiz".

Egitaraua udaleko Euskara Batzordearen lehen fruitua da, "izan ere, Euskararen Eguna egun

handia eta garrantzitsua da, gure hizkuntzaren eguna" esan du udaleko euskara zinegotzi Haizea Ramirez de Aldak. Azaroan elkar-tu ziren lehenengoz ikastetxe eta hainbat zuzendari, zenbait guraso, beste hainbeste irakasle, euskaltzale, euskara zinegotziarekin batera. Altsasuko Udalak euskararen alorrean egin beharko lukeen lanean eragin eta elkarlanean hainbatekimen aurrera eramaten hasteko bidea izan zen.

SAKANA



Txartela erabiltzeak sarria dauka.

Txartelarekin landetxera edo kanpinera

Beleixeguaixe txartela hiru establezimendutan erabili eta haien zigiluak jasota landa etxe edota kanpin baterako egonaldiak irabazi daitezke

Gaur egun Sakanako 80 establezimendutan baino gehiagotan lortu daitezke abantailak Beleixeguaixe txartela erakutsita. Erosketa egitekoan deskontuak, kontsumizioaren zati bat opari jasotzea eta bestelakoak dira establezimendu horiek eskaintzen dutena. Urte guztian. Eguberri aurretik txartela erabiltzen dutenek, gainera, bi sari ederren zozketa batean sartzeko aukera izanzen dute: Nekatur, Euskadiko Nekazturismo eta Landetxeen elkarte kideren baten egoitzan edota Artazako kanpinean bi lagunendako egonaldi bana.

Zozketa horretan parte hartu nahi dutenek Guaixe astekariaren lehen orrian argitaratu den iragarkia moztu behar dute (Guaixeren Twitter eta Facebook bidez ere zabaldu dira). Beleixeguaixe txartelarekin erosketa egiten dutenean establezimenduko arduradunak bere zigilua jartzeko eskatu behar dute. Hiru zigilu lortu arte. Egindakoan txartela Bierrik fundazioaren bulegora ekarri behar da (Altsasuko Foru plaza 23, 1.), abenduaren 22a baino lehen. Izan ere, egun horretan, eguerdian zozketa egingen da. Beleixeguaixe txartela dutenei lehian parte hartzeko gonbitea luzatu die Bierrik fundazioak. Sakanan erosketak eginez ibarreko ekonomia biziberritzen delako eta, aldi berean, herriak bizitzeko betetzen direlako. Txartela ez dutenek, urtean 50 euroko ekarpena eginez gero makina bat abantaila eskuratzeko aukera izanzen dutela ere gogorarazi dute fundaziotik.

SAKANA

Karasatorre: inkesta hau egiteko ohiko prozedura erabili da

Siadeco enpresak Nafarroako Mendialdeko 12 eta 16 urte arteko gaztetxoek eta haien gurasoek euskararekiko jarrera ikertzen ari da. Soziolinguistikako lan horren emaitzak Iparraldeko Euskara Mankomunitateko, Baztango Udaleko, Bortzirietako Euskara Mankomunitateko, Malerrekako Mankomunitateko eta Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuei hurrengo urteetarako plangintzak osatzeko balia garri izanen zaizkie.

Diario de Navarra egunkariak atzo argitaratu zuenez, "inkestaren eduki politikoagatik eta abisatu ez zaielako haserre adierazi duten familiak daude". Informazio horri erantzun nahi izan dio

Aitor Karasatorre Muguruzak, Sakanako Mankomunitateko presidentea, gainontzeko erakundeen izenean Mankomunitateko kudeaketa egin baitu.

Ezaugarriak

Karasatorrek azaldu duenez, inkestak bi maila ditu. "Lehen a ikerketa kuantitatiboa da eta horren barne DBHko ikasmila guztietako ikasleak inkestatu dira". Ikastetxe guztietan tokian tokiko lehendakariaren gutuna helarazi aie ikerketaren nondik norakoak azaltzeko. Galdetegia ere bidali aie ikastetxeei alde aurretik. "Ikastetxe bakar batean ere ez da eragozpenik izan galdetegia

egiteko. Arazo bakarra egon da: Irurtzango Atakondoa ikastetxe publikoko guraso batek eskatu du bere seme-alabari inkesta ez egitea, eta, gurasoen nahia errespetatu dugu".

Mankomunitateko buruak gaineratu du galdetegia "ikerketa soziolinguistikokoan erabiltzen den ohiko galdetegia da, Siadeco enpresak diseinatu eta eremu horretako euskara teknikari guztien onespina duena". Galdetegia anonimoa dela azpimarratu du. Ikerketaren bigarren atalean eztabaida taldeak, elkarrizketa sakonak eta beste egin behar dira. Karasatorren arabera "Helburua da euskararen erabilera eta egoera

orokorraz dituzten iritziak jasotzea, eta nagusiki 10 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoekin landuko da".

Karasatorrek jakinarazi duenez, "ikerketa soziolinguistikoa aurreko legegintzaldiko Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza jaso du, euskara erabiltzeko eta sustatzeko toki entitateendako diru-laguntza deialdiaren barruan, hain zuzen ere". Inkesta egiteko ohiko prozedura erabili dela gaztigatu du. "Ez zaiere hiru garrenei baimenik eskatu toki entitateek zein ikastetxeek autonomia dutelako gisa honetako ikerketak egiteko".

+www.guaixe.eus

Hyundai Tucson berria
Aldatzea jarrera bat da

#changeisgood

Aldaketa gure bizitzaren parte da. Sentsazio berriak eta une zirrargarriak aurkitzen laguntzen digu. Iru-dimenaren motorra da. Hyundai Tucson berria jarrera horretatik jaio da. Bere diseinuak eta berrikuntza teknologikoez, gidatzeko duzun gozatzeko modua aldaraziko dizu.

Probatu aldaketaren poterea www.hyundai.es-en

HYUNDAI NEW THINKING. NEW POSSIBILITIES.

AUTO TALLERES SAN MIGUEL S.A.
ALTSASU • 948 562 261 • IRURTZUN • 948 600 657 • www.autsanmiguel.com



Tucson 1.6 GDI (131CV) 4X2 BD ESSENCE (8.900€) Penintsulan eta Balearetan PSP aholkatuta. BEZ, garraioa, matrikulazio zerga, promozio deskontua, konzesionarioaren ekarpena, mantenimendurako eskaintza, Plan Hyundai Solución eta Gobernuaren Plan PIVEa. Eskaintza hau Santander Consumer EFC S.A. ren bidez finantzatzeko dute bezeroendako izango da, gutxienez 13.000€ko zenbatekoarekin eta 60 hilabeteko gutxienezko epea izango duena. Finantzaio entitatearen ikerketa eta onarpenaren pean dago. Eskaintza 2015/12/31ra arte da baliozkoa. Ikusgai dagoen modelo: Tucson Style. Kotxearen finantzaioari lotuta dago mantenimendua. Eskaintzaren baldintzak eta mantenimendu argibideak Hyundai kontzesionarioetan edo hyundai.es-en.

Gama Hyundai Tucson: CO₂ (gr/km) isurtzea: 119-175.
Kontsumo mistoa (l/100km): 4,6-7,5.

>> Unanu

Eraikuntza hondakinen kudeaketa proiektuari buruzko batzarra deitu dute

Igandean, 12:00etan, Denok Bat elkarteak izanen den batzarrean unanarrak parte hartzea deitu dituzte

Unanuko untxi granjaren ondoan (Dorraorako errepide ertzean) eraikuntza eta eraiste hondakinak kudeatzeko instalazio gune bat

jartzeko proiektua aurkeztu da. Zenbait unanuarrek kezka hartu dute egitasmoa: “plantak ibarrera eta gure eguneroko bizimodura ekar ditzakeen ondorioengatik”. Gogorarazi dutenez, gaur egun Ergoienan lurrari lotutako jarduerak lantzen dira: nekazari-

tza, artzaintza, beste abeltzaintza, nekazal turismoa...

Haien iritziz, “proiektua egingo balitz gure ibarrak eskaintzen dituen lasaitasuna eta sosegua erabat kaltetua gertatuko litzateke, kontuan hartuta proiektuak izanen litzuzkeen ikus eta ingurumen ondo-

rioak. Gaur egun gure ibarra inguruko eremuen landare-hauspoa da”. Unanuar horiek argitu dutenez, “ez dugu proiektua arbuiaitzen, haren kokapena baizik. Gure ustez horrelako planta bat jartzeko badira toki proposagoak, industrialdeak esaterako”.

SAKANA

Andra Mari ikastolaren historian mugarri berria

Andra Mari ikastola berria errealitate bihurtuta. Halaxe ikusi zuten makina bat sakandarrek azaroaren 28an egindako irekiera ekitaldian. Ikastetxe berriko frontoian aterpe hartuta egin zen ekitaldia. Andra Mari ikastola posible egin duen komunitate osoari eskainitako aurrekuaren ondoren, zinta moztu eta eraikina goitik behera ezagutzeko aukera izan zuten ekitaldira joandako guztiak.

4.000 metro karratu lau solairutan banatuta. Eraikinak 2 eta 12 urte bitarteko 310 ikasle hartzen ditu. DBHkoekin batera Andra Mari ikastolan 426 ikasle ari dira. 14 herrietakoak dira, Hiriberritik Iturmendira. Etorkizunean DBHko, Batxilergo edo Lanbide Heziketako ikasketak hartzeko eraikinak jasotzea buruan dute Andra Marikoek.

Hizlariak

Andra Mari ikastolako presidentea **Uxue Lazkanok** nabarmendu zuenez, “denon artean egin dugu posible gaur mustu dugun eraikina. Atzoko eta gaurko guraso, langile eta laguntzaile guztiak herriarendako egina, herritik herrira”. Lazkanok adierazi zuenez, “euskararekin batera, kompetentziak oinarri dituen hezkuntza eredu propio eta aurrerakoa da” ikastolena; “auzolanean eta elkartasunean, hezkuntzan zein egunerokotasunaren gestioan oinarritua”. Auzolanak eta elkartasunak ikastolak irauarazi duten baloreak direla azpimarratu zuen Lazka-



Jendetza bildu zen Andra Mari ikastola berriaren mustutze ekitaldian.

nok; langileen profesionaltasuna eta inplikazioa ahaztu gabe. Denen ekarpenekin “pedagogia erronka berriei erantzuna emanen dien eraikina altxatu dugu”.

Ikastola hartzen duten udalen ordezkari gisa **Eneka Maiz Ulaia-rrek**, Etxarri Aranazko alkateak, hartu zuen hitza. Ikastolako guraso sortzaileen alaba eta ikasle ohia, ikastolan irakasle izandakoa da eta, gaur egun, ikastolako guraso bada Maiz. Gurasoek egindako auzolan amaigabeak gogora ekarri zituen. “Bitartean, gu proiektu berritzaile, iraultzaile eta erraldoi bateko protagonistak ginen: euskarari, gure hizkuntzari, zego-kion tokia ematea”. Ikastolena “lan kooperatiboan, auzolanean eta autogestioan” oinarritutako proiektua dela azaldu zuen. Ikas-

tola berria “eduki eta mami berriz betetzen segitu” behar dela gaztigitatu zuen eta udalak lagun izanen dituztela gaineratu zuen.

Nafarroako Ikastolen Elkarteko buru **Josu Reparazek** Andra Mari ikastolako irudia diren bost hostoetan oinarrituta “Andra Mari ikastolaren egitekoak eta lan moduak” zerrendatu zituen: aniztasuna, identitatea, historia, elkartasuna, sormena, jasagarritasuna eta eraldatzailea. Mustutze ekitaldia “etorkizuneko erronken hasiera” zela azaldu zuen Reparazek.

Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko buru **Koldo Tellituk** ikastolek hainbat arlotan aurre egin dituzten erronkak nabarmendu zituen. “Ikastolok dugun benetako gastuari aurre egiteko finantziario publikoa oso labu-

Mugarriak

1969an sortu zen Andra Mari ikastola Etxarri Aranatzen. Gero, Arbizuko, Lakuntzako, Uharteko Arakilgo eta Bakaikuko ikastola etorri ziren. Guztiak gaur egungo Andra Mari ikastolan batu ziren. 1989ko Nafarroa Oinezkoetekin eskolako irakasleentxeak zirenak ikastetxe gisa egokitu zituzten. 1996ko ikastolen festako irabaziekin eraikina DBHrako egokitu zuten. 2009an Nafarroa Oinez antolatu zuten eta lortutako dirua eraikin berrirako bideratuko zen. 2013an ikastola berriaren lehen harria jarri zen.

rra” dela salatu zuen. “Konpromiso, auzolan eta elkartasuna” ikastolek aurrera egiteko tresnak direla azaldu zuen. “Publikotasun kontzeptu berritzaile bat aldarrikatzen dugu: hezkuntza zerbitzu publiko kontzeptua. Hau da, zerbitzuari lotutako publikotasuna”. Bi zutabeetan oinarritzen da kontzeptua: “izaera publiko izaera estataletik bereziko duena, herritik sortua eta herriarendako”. Egungo sistemaren erroa gaintzeko eskaera egin zuen, “gure herriak eskatzen duen hezkuntza sistema propioari erantzuten ez diolako”.

Estebe Petrizanek Andra Mari ikastolako komunitateak mustutzearekin sentitzen zuen poza Nafarroako gobernuak eta berak partekatzen zutela adierazi zuen. Gobernuordezkariak Nafarroako ikastolen 50 urtemuga eta Andra Mari ikastolaren eraikinen mustutzea lotu zituen adierazteko “ikastolen bizitasunaren adierazle” zirela. +www.guaixe.eus

SAKANA

Hiru gaztandegirendako lau domina

Idiazabal jatorri izendapenaren barruan dauden hiru gaztandegi sakandarrek sariak lortu dituzte World Chesse Awards lehiaketan. Juananeko Gaztak (Arbizu) zilarrezko bi domina eskuratu ditu. Balda, Artola y otros gaztandegiak (Berriain marka, Unanu) ere zilarrezko domina bat eskuratu zuen. La Vasconavarra enpresak (Vasconavarra marka, Olatzagutia), berriz, brontzezkoa eskuratu du. Munduko gazten sariketaren 28. edizioa Birminghamen jokatu zen igandean. Mundu guztiko 2.745 gazta lehiatu ziren eta Idiazabal jatorri izendapenak guztira 32 sari eskuratu zituen. “Gazten Oskarrak” den lehiaketa hori heldu den urtean Donostian jokatu da.

>> Olatzagutia

Portlanden magnesita egiteko baimena irautia

Hala jakinarazi zuen Nafarroako Gobernuak azaroaren 27an, Cementos Portland Valderrivasi (CPV) Olatzagutiko porlandegian magnesita egiteko baimena irauti zaiola. CPVk 2013ko agorrilean jaso zuen magnesio oxidoa eta dolomia sinterizatua ekoizteko proiekturako baimena. Bi urte pasa eta enpresak magnesita ekoizteko beharrezko lanak egin ez dituenek, baimena bertan behera gelditu da. Erabakiaren kontra alegazio epean gobernuak ez zuen inolako oharrik jaso.

Arrazoi beragatik, bi urte pasa eta proiektua aurrera eramateko lanak eginez zirelako, Nafarroako Gobernuak irautitatu eta baliorik gabe utzi zuen CPVren hondakinak erretzeko baimena irailaren 16an.

>> Altsasu



Eguberri zuhaitza piztua

Altsasuko Dendarien Elkarteak (ADE) eguberri garaia iragartzeko argiztatutako zuhaitz bat piztu zuen abenduaren 2an. Zuhaitza udal-terreko lorategiaren mutur batean dago ADEk ekitaldi horrekin eguberri giroa sortu nahi du altsasuarren artean, lan eta ekonomia arloan urteetako albiste txarrak une batez ahazteko. Ekitaldiak jendetza erakarri zuen. ADEk txokolate beroa banatu zuten eta haurren artean zozketak egin zituen.

IGOA
arroindegia

948 460 111 · Arkuetobide kalea · Etxarri Aranatz

nerea cenoz
nutrición

Giza Elikaduran eta Dietetikan Diplomatuak (Nafarroako Unibersitatea)

info@nereacnoz.com
nereacnoz.com

Informazio gehiago 654 910 289 telefonoan

Estafeta 16, atzea · Lakuntza (Bostekoa masaje zentroan)

Pisua kontrolatzeko dietak:

- Argaltzeko dietak
- Pisua hartzeko dietak
- Mantenimenduko dietak
- Haurdunaldi-dietak

Patologia ezberdinetarako dietak

- Kirol-elikadura
- Elikadura arazoak
- Nutrizio-hezkuntza

» Altsasu

Inauteri pertsonaiak kamara aurrera

Altsasuarrei larunbatean, 9:00etan, Altsasuko plazan momoxorro, sorgin eta bestelako pertsonaien moztaroz agertzeko deialdia egin zaie, Urbasan grabatu nahi den bideo batean parte hartzeko

Altsasuko Inauteri Batzordeak herriko ihoteko momotxorro, sorgina eta bestepertsonaien moztaroz

duen altsasuarrei bihar egindako deialdira agertzeko eskaera egin die. Batzordeak Bidelagun Sakanako Turismo Elkartearekin batera ihoteko pertsonaiak ageri diren bideoa grabatu nahi du. Hitzordua 9:00etan jarri dute Foru plazan, baina grabazioa Urbasan egingen da.

Bidelagun Sakanari buruzko bideoa grabatzen ari da eta hartan Altsasuko inauteriaren berri eman nahi du. Fitur moduko turismo azoketan ikusgai jarriko du.

Bestalde, dozena bat momotxorro kamara aurrean jarri ziren larunbat arratsaldean. Mercenary

productions zinema konpainia frantziarrak *Tales of the wind* seriea egiten ari da. Lehen zatia euskal kulturari eta herri kirolei eskainia dago eta, horren barruan, momotxorroak agertuko dira. Clemente Bauvais eta Arthur Kersausion zuzendariak grabazioa baino egun batzuk lehenago grabazioa egiteko kokapen posibleak bisita-

tu zituzten (Murgil, Sorozarreta, Santa Lucia sakan, Maibelo, Dantzaleku, San Pedro eta Kostakosoi). Azkenean, larunbateko grabazioa Kostakosoi dermionan egin zen. Bi ordu eta erdiko grabazioa izan zen eta batzordeko kideek jakinarazi digutenez, filmaziokoak "pertsonaiaren eta inguruaren indarrak harrিতa gelditu ziren".

» Olatzagutia

Planetaren orri-markatzaile bat Olatzagutian

Egibil harrobia Lurraren historia geologikoaren "garrantzi bereziko" mugari izendatu du Unescoren Nazioarteko Geologia Zientzien Batasunak. Horren adierazle gisa urre-koloreko iltzea jarri zuten azaroaren 27an. Egibil harrobiak geologei Lurraren 4.600 milioi urteetako historiaren 5 milioi urteko tarte bat agerian uzten die.

Egibil harrobitik porlana egiteko marga edo tuparria ateratzen du Cementos Portland Valderrivas enpresak. Harrobiaren ekialdean erabiltzen ez den zati bat dago eta han sartu zuten Unescoren mende dagoen Nazioarteko Geologia Zientzien Batasunak (IUGS) bereizgarria, urre-koloreko iltzea, ostiralean. Lur planeta hainbat kapaz osatuta dago eta Olatzagutiako bargako harrobian

bi kapen arteko banaketa puntua zehaztu zuten. Geologoendako orri-markatzaile bat jarri zuten. Edo haiek dioten moduan, sekzio edo puntu estratotipo orokor edo GSSP modura egiaztatuta gelditu da.

Ikerlariak eremua behar bezala aztertu ahal izateko Egibilko harrobian gune bat prestatu da. Babes-hesiak, aparkalekua, sartzeko bidea eta azalpen-taulak jarri dira. Nafarroako Gobernuak eta Espainiako Geologia eta Meatzaritza Institutuak 17.000 bat euro inbertitu dituzte, eta haietatik, 9.950 euro foru administrazioak jarri ditu. Cementos Portland Valderrivasek beharrezko laguntza ere eman du. +www.guaixe.eus



Bi gizonak kuxkurtuta dauden tokian sartu zuten urre koloreko iltzea. Goian, Stann Finney eta Manu Aierdi.

gertutik >>

Asier Hilario

Euskal Kostaldea Geoparkeko zientzia zuzendaria

Zer gertatu da gaur?

Geologiarendako egun handia da hau. Lurraren historiaren une bat, konkretuki, duela 86 milioi urte Olatzagutian kokatu dugu. Lurak 4.600 milioi urte ditu. Oso zaharra da. Geologok, elkar ulertzeko, denbora hori guztia hainbat kapitulu banatzen dugu. Kapitulu horiek banatzen dira geologoen munduko haitzetan, arroketan irakurri dezakegun gertaerengatik: espeziaren agerpena eta desagertzea, klima aldaketak... Planeta guztiko haitzetan gertatzen diren bat atzematean kapitulu



baten bukaera eta hurrengoaren hasiera markatzeko balio du. Esaterako, Olatzaguti 86 milioi urteko kapituluak banatzeko balio du. Horrela, poliki-poliki, geologia-denboraren taula osatzen da; izen arraroak dituen eta ikastetxean denok ikasi duguna. Denbora taula horrek mendian isla du. Taula horretan dauden kapitulu horiek guztiak, munduan nonbaiten de-

finituak daude. Horietako bat, Santoniarra, zehazki, Olatzagutian definitua izan da.

Munduko geologoendako Olatzagutia mugari nabarmen batean bihurtu da?

Erreferente bat da, dudarik gabe. Esaterako, 66 milioi urte dinosauroak desagertu ziren. Dinosauroen desagertzea balio digu esateko kretazeoa hemen bukatzen da eta paleogena hasten da. Kasu honetan, duela 86 milioi urte lehen aldiz fosil mota bat agertzen da, inozeramido konkretu bat. Mundu guztian, adin hori duten haitzetan, hori non ikusi daitekeen bilatzen da. Eta horietan guztietan hoberena aukeratu behar da. Bozketa bidez aukeratu da eta ondoren urre koloreko iltzea kokatu da. Horrek esan nahi du garai horretako haitzak ikertu

nahi dituzten munduko geologo guztiak aintzat hartu behar dutela Olatzagutian ikusten dena.

Hemen itsas izarra, maskorak eta beste ikusiko dituzte, ezta?

Bai. Horrek esan nahi du Sakana guztia itsasoko sedimentuz egina dagoela. Duela 100 milioi urtetik 40 milioi urtera edo, Hemen ditugun haitzak itsastarrak dira: kareharriak eta tupak. Fosil itsastarrak beteta daude. Horrek esan nahi du Sakana, ia Euskal Herri guztia bezala, itsaso azpian zegoela. Iberia eta Europa banatzen zuten itsasoa zen. Itsasoaren azpian, poliki-poliki, sedimentu itsastarrak metatu ziren, fosil itsastarrak batera. Gaur egun hemen ikusten direnak. Duela 40 milioi urte, gutxi gorabehera, Iberiak Europarekin talka egin zuen eta sedimentu horiek

guztiak, kareharri bihurtuta, harri bihurtuta, altxatu ziren eta gaur egun ditugun mendi eder hauek eman zizkiguten.

Geologiako altxorra, beraz?

Sakanan munduko lehen mailako erreferente bat duzue.

Urbasa eta Zumaiaiko flischa adinkideak dira, ezta?

Zumaian ikusi daitezkeen haitzak duela 70 eta 50 milioi urte artekoak dira gutxi gorabehera. Garai horretan euskal kostaldean ikusi ditzakegun flischa moduko haitz horiek, kapa oso definituak dituztenak, horiek itsaso beraren azpian baina sakonera handian sartu ziren. Itsaso berean, garai berdinean, sakonera gutxiago zuten plataformetan sortzen ari ziren koralez egindako Urbasako gaur egungo kareharriak.

» Altsasu

Laguntza Txakurren Legearen ezagutza zabaltzen

Horretan segitzen du Bocalan Biak Bat fundazioak: legeak laguntza txakurrei aitortzen dizkien eskubide eta betebeharrak ezagutarazten. Abenduaren 1ean Altsasuko 10 bat dendari eta ostalari trebatu zituzten. Laguntza txakurra duten pertsonak hartzeko konpromisoa hartu zuten. Horren adierazle den ikur bat jasoko dute euren establezimenduetan jartzeko. +www.guaixe.eus

Zatoz gure ardotegia ezagutzera!

HIJOS DE GOIKOETXEA
EDARI BANATZAILA

Geltoki auzoa 11 · Altsasu
948 467 317 · 696 979 279 · hijosdegoikoetxea@yahoo.es

Ogiaren artisauek

PORTUKO okindegia

ETXARRIARANATZ: 948 460 988
ALTSASU: Denda: 948 563 822 · Lantegia: 948 467 153

» Altsasu

Altsasu Memoria bigarren erakusketa zabalik

Abenduaren 20ra arte, 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean.

Altsasu Memoria eragilea duela bi urte "herriko historia oroimena egin eta bazterrean gelditu den historia azaleratzeko lanean" hasi zen. Joan den urtean 1940 urte bitarteko Altsasuko historiari buruzko pasarteak azalatu zituzten. Aurten, berriz, 1950 eta 1992 bitarteko jasotakoak ezagutarazi dituzte; ekitaldi moduan garagarrilean eta erakusketan orain.

Abenduaren 20 bitartean egonen da erakusketa Iortia kultur gunean. Aser Imazek azaldu digunez, "jendea etorri eta denbora hartuta ikusi, irakurri dezan nahi dugu. Baina erakusketa, batez ere, ekarpenak, zuzenketak eta kritikak jasotzeko egiten dugu". Imazek gaineratu du pasa den urteko erakusketan hala izan zela, "denbora gehiagorekin eta harreman gehiagorekin, jendeak ekarpen handiak egiten ditu. Historia gehiago atera-



Ikusleek ekarpenak, kritikak eta zuzenketak egitea nahi dute antolatzaileek.

tzen dira eta horrela Altsasuko historia osatzen dugu". Taldekideei esan edo erakusketako liburu zurian egin daitezke ekarpenak.

Informazio asko jaso dute taldeko kideek eta hura argazkiekin lagundutako testuekin, bildumekin (diskoak, liburuak, txapak, aldizkariak eta festa egitarauak), bideo-proiektzioekin, Jose Ramon Urtasunen koadroekin, hemeroteka eta garaiko objektuekin (iturri, moto eta irrati zaharra, ikurriña-

Egutegia

Altsasu Memoriak 2016ko egutegia argitaratu du. Erakusketan 9 eurotan dago salgai. Taldeak jasotako material guztia liburu edo DVD batean argitaratu nahi luke eta jasotako dirua horretara bideratuko du.

dun balkoia, baserritar jantziak...) osatu dute. "Aretoan garai hartako giroa islatzen saiatu gara".

» SAKANA

Amiantoarekin kezkatuta

Gaur, 18:00etan, Altsasuko Gure Etxea eraikinean bigarren hitzaldia emanen du Jesus Uzkudun Illarramendik, gaixotasun profesionaletan adituak

Duela bi aste 45 bat pertsona elkartziren Altsasuko Gure Etxea eraikinean Jesus Uzkudun Illarramendi entzuteran. Uzkudunek azaldu digunez, "jendeak interes handia azaldu zuen". Izan ere, langile asko izan dira amiantoarekin inolako babesik gabe lan egin dutenak. Produktu horrek eta beste hainbat erabilpenak gaitz profesionalak sortzen ditu. "Baina hots altuak sortutako gorrieriaz ere hitz egin genuen eta jendea harrituta gelditu zen".

ELKARTEA SORTU

Amiantoak kaltetutakoak bilduko dituen elkarte bat sortu nahi luke Nafarroan. "Horretarako motor txiki bat behar da, gu laguntzeko prest gaude". Duela bi asteko hitzaldiaren ondoren Nafarroan zerbait "mugitzeko aukera" ikusten du, "bi sindikatu etako ordezkariak han zeuden".

+www.guaixe.eus

LABek eraberritze prozesuari ekin dio

Gizartea aldatu denez, eta gaur egun langile mugimenduak bizi duen egoeraren aurrean, LAB sindikatuak bere burua eraberritzea ezinbesteko jodu. Urte hasieran abiarazi zuen *Birpentsatzen* prozesua, langile mugimendua fase bat despeditu dela uste baitute LABen. Sindikatua birpentsatzeko prozesua 2017ko kongresura arte luzatuko dute. Prozesu horretan afiliatuak eta LABekin batera mugimendu sozialetan lanean hari den jendeak parte hartuko du. Sakana eta Larraungo LABek prozesuari hasiera emateko larunbatean tailerra egingen du Etxarri Aranazko kultur etxean, 9:00etatik aurrera.

HAUTESKUNDE AGENDA

Ione Belarra, Eduardo Santos eta Ainhoa Aznarez
Abenduaren 11n, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. Podemos-Ahal Dugu.

» Olatzagutia

3MBk Hondakinen Kudeaketa Plan Integralerako ideia sorta ekarri ditu Bartzelonatik

Bartzelonan errausketaren aurkako eta zero zabor egitasmoaren aldeko II. Nazioarteko Topaketa egin zen azaroko azken asteburuan. 3 Mugak Batera (3MB) plataformako kideak ere han izan ziren. 3MB-eko kideen iritziz "Nafarroako Hondakinen Kudeaketa Plan Integral berria egiten ari den garai honetan topaketan eztabaidatutako guztia kontuan hartu beharko litzateke".

Topaketaren ondoretako bat, estatuak hondakin errausketa zementu-fabriketara bideratzearen alde egiten ari direla da. Bi arrazoi leudeke horren atzean. Batetik, errausketa planta eraikitzeak duen kostuaren arazoasaihesten da. Eta, bestetik, "herritarren erantzuna ere apaltzea lortzen dute, oro har herritarrek jarduera honen arris-

kuaz ohartu arren, nahi gabe ere urte luzez ezagutu duten zementu-fabrika baten ekoizpenarekin nahasten dutelako".

Ondorio gehiago

Topaketan "laborategitik ateratako kontzeptu berri" gisa definitu dute "Hondakinetatik Eratorritako Erregai" (HEE) definizioa. Aurretik, "energia balorizazioa" eta beste kontzeptu batzuekin gertatu den bezala. "Hondakinak hondakin izateari utzi eta erregai bihurtzen direla esanez herritarrek lotsagabeki engainatu" nahi dituztela salatu dute Bartzelonan bildutakoek. Aldi berean, gaztigatu dute HEEen erkidegoen arteko eta nazioarteko hondakinen salerosketarako mugak gainditu egiten direla.



Batzarrean hainbat erakundeetako kideak elkartziren, sakandarrak barne.

Bartzelonako topaketan zeuden guztiak argi zuten errausketa ez dela konponbidea eta zero zabor sortzearen aldeko apustua egin behar dela aldarrikatu dute. "Ekoizten den material orok bir-

ziklagarria behar luke eta horrek materialak berreskuratzean oinarritutako ekonomia zirkularra indartuko luke". Nazioartean zero zabor helburuak neurri handian lorgarriak direla egiaztatzen duten

esperientzia ugari daudela ere gaztigatu dute. Ezartzen ari diren esperientzien artean zerrendatu dituzte: ingurumen hezkuntza programak, gaikako hondakin berdiseinu industriala eta abar. Ohartarazi dutenez, "lortzen ari diren emaitzak ikusgarriak dira".

Adostasuna lortu dute "hondakin errausketa zigortuko duen legeriaren alde egin beharra" dagoela esatean. Horregatik gaixotzen direnen zainketa eta tratamenduek sortzen duten gastua errausketaren arduradunen gain jarri beharko lirakeela esan dute; "kutsatzen duenak benetan ordain dezala egiten duen kaltea". Bestalde, Hondakin Prebentziorako Legea bultzatu beharra sumatu dute. Han jasoa geratuko litzateke: ekoizlearen ardura sustatzea, erabilera bakarreko produktuen ekoizpena debekatzea (plastikozko poltsak, kafe kapsulak...), ahalik eta hondakin gutxien sortzea...

TRIKINAKO
haurren arropa eta leintzeria

948 46 73 08
Ferialeku 2 - ALTSASU

BILTOKI
TABERNA • JATETXEA

Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta

Asteleheneetik ostiralera
Eguneko menua
8,25€

Asteburuetan
Menu berezia 25€

948 467 876 • Altsasu

9 lagunendako
TAXIA

Jon Kordon

948 500 388 / 629 428 025
IRURTZUN

Sorginak
taberna

LAKUNTZA
948 576 357

» Bakaiku

Bakaikuarren deklarazio hartzea salatu du EH Bilduk

Espainiako Auzitegi Nazionaleko Santiago Pedraz epaileak deituta, Iruñeko Justizia Jauregitik Bakaikuko alkateak, bi zinegotzik eta hiru herritarrek bideo-konferentzia bidez deklaratu zuten abenduaren batean. Guztiei "terrorismoaren gorazarrea" egitea leporatu die. EH Bilduk "irmoki" salatu du "beste behin, eskubide zibil eta politikoak bortxatu ditu Espainiako Estatuak".



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza

www.tanatoriosirache.com

guaixe.iragarkilaburak.com

NORBANAKOEN IRAGARKIAK
Guaixe astekarian: Astebete: 3€ / 3 Astez: 8€ (BEZ barne). Argazki bakoitzeko 3€. Lan eskaerak/eskaintzak eta pribatuak ez diren ikastaroak: **doan**.
Webgunean: guaixe.iragarkilaburak.com-en.

HARREMANETARAKO
Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.eus

Higiezinak
ETXEBIZITZAK

SALGAI
Etxebizitza lursailarekin salgai Etxarri Aranatzen. 4 gela, 2 komun, sukalde-egongela, garajea eta 130 metro karratuko lursaila. Interesatuak deitu 676 92 71 65 telefonora.

Pisua salgai Arbizun. 3 gela, komuna, egongela behoko suarekin, estudio txiki bat. Bajera 40 m² eta trastelekua 35 m². 110.000 €. Tel 676 24 83 05.

LURSAILAK

SALGAI
497,01 m²ko lursaila salgai Olaztin. Mendiabide bidearen eta Erburua bidearen artean dago. Tel 948 24 38 09 eta 943 53 45 18.

Opatutakoak/ galdutakoak

OPATUTAKOAK
Altsasuko Udaltzaingoak Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

Oharrak

Amalur Montessori Haur Eskola. Haurra bere osotasunean hartzen duen proiektua, beren ongizatea bermatzen duen proiektu euskalduna. Harremanetarako 620 25 42 30 eta amalur@amalurkarteak.org


Altsasuko irakurle taldea. Abenduaren 16an, "El atentado", Yasmina Khadra.

Odol-emaileak. Abenduaren 30ean, Irurtzunen, arratsaldean.

Arropa bilketa. Calais-eko errefuxiatuendako: mantak, lo zakuak, kanpin dendak, neguko arropa. Bilketa puntuak: Beheko Benta, 3 (Altsasu). Astelehenerik ostiralera 15:45tik 17:45era. Beste ordutegiak: 660 89 05 45.

Sakanako Enpresarien Elkarteak. Lan-merkaturko bitartekotza eta orientabide zerbitzua Sakanako langabetuen enplegagarritasuna hobetzeko. Interesaturik bazaudela elkarrizketa bat egiteko, zator eta gurekin harremanetan jarri 948 46 83 07 telefonon. Doako zerbitzua da.

GoiEner Iruñean. Landarek utzitako lekuan, Joaquín Beunza, 9 behe, Errotxapean, hilabeteko lehenengo eta hirugarren asteazketan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa jasotzera, zalan-tzak argitzera, ekarpenak egitera...




Eusebio Lazkoz Razkin
IV. urteurrena

Gure ondotik joan zinen,
baina ez gure bihotzetik.
Beti jarraituko duzu gurekin.

Maite zaitugu.

Emaztea, seme-alabak eta bilobak



Teresa Arregi Agirre
(Fernando Mendiluzeren alarguna)

Iruñean hil zen, 2015eko azaroaren 30ean, 89 urte zituela.

Goian bego.

**Zure senideak eta diren guztiak,
eta ez izanik ere, daudenak**

Altsasun, 2015eko abenduaren 1ean.



Felix Iribarren Iribarren

Beti gure artean izango zaitugu.

Txapel Azpi Elkarteak

Irañeta.




Felix Iribarren Iribarren
«Franserena»

Bizitza zurekin konpartitzeko aukera izan dugunon oroitzapenean geratzen zara.

Irañetako lagunak

Irañetan, 2015eko abenduaren 11n.



Felix Iribarren Iribarren

Felix, zartakoa jaso dugu gure artetik joatean, plazerra zen beti zurekin solas egitea, fina, leiala, zintzoa.
Galtze handia dugu barrenean.
Doluminik sentikorrenak etxekoei.

Irañetako zure semeen lagunak



Miguel Asurabarrena Urdaniz

Bere familiak bihotzez eskertzen ditu, bere heriotza dela eta, jasotako maitasun adierazpenak eta doluminak.

Familia
Lakuntzan.

JAIOTZAK

- **Noemi Vaz Dos Santos**, azaroaren 20an Altsasun.
- **Eki Miguel Sarasola**, azaroaren 23an Altsasun.
- **Ane Zabalza Aulestiarte**, azaroaren 30ean Arbizun.
- **Aitor Alegria Piñas**, abenduaren 1ean Lakuntzan.

HERIOTZAK

- **Luis Uriarte Berastegi eta Teresa Razkin Iribarren**, abenduaren 5ean Olaztin.
- **Maria Larraza Inza**, abenduaren 3an Altsasun.
- **Marcelina Hernandez Castellano**, abenduaren 3an Altsasun.
- **Migel Asurabarrena Urdaniz**, abenduaren 5ean Lakuntzan.

EZKONTZAK

- **Julen Razkin Flores eta Olaia Ezker Anaut**, abenduaren 4an Lakuntzan.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.



Jesús Imaz Imaz

Eskerrik asko familiaren balioa ulertarazteagatik.

Altsasun, 2015eko abenduaren 9an.



GRUPO
Funeraria VASCONGADA
Ehorzketak
TALDEA

Olaberrian bertan **BEILATOKIA** eta **ERRAUSTOKIA**
www.funerariavascongada.com

24 ORDUZ: **943 106 222 • 943 376 980**

Kiroldegia

Nazabal, Mariñelarena eta Mata omenduak

Nafarroako Gobernuaren Kirol Merituari domina jaso zuen Eduvigis Matak eta Ohorezko Aipamena Floren Nazabalek eta Alex Mariñelarenak

Nafarroako Gobernuak urtero Kirol Merituari Zilarrezko Domina eta Ohorezko Aipamenak ematen ditu, kirolaren alorrean lana egiten duten kirolariak eta sustatzaileak omentzeko. Abenduaren 2an egin zuten ekitaldia, Nafarroako Jauregian. Nafarroako presidente Uxue Barcos, Nafarroako parlamentuko presidente Ainhoa Aznarez eta Nafarroako Kirol Institutuko presidente Ruben Goñi izan ziren bertan.

Kirol Merituari errekonozimendua egiteko banatu diren 17 dominen artean bat Sakanara ekarri zuen Eduvigis Mata Leonek. Matak 33 urte daramatza Irurtzunen pilota sustatzen eta lan horri aitortza egin dio Nafarroako Gobernuak. Bestalde, Nafarroako lau Ohorezko Aipamen egin zituen, horietako bi bi kirolari sakandarrei: aurten erretiroa hartu duen Floren Nazabal Leitza aizkolari etxarriar handiari eta Alex Mariñelarena Mutiloa pilotuari.

Uxue Barcos presidentek



Omendutako guztiak, Nazabal, Mariñelarena eta Mata bertan direla, Barcos, Aznarez eta Goñirekin. UTZITAKOIA

omendutako guztiak zoriondu zituen, eta kirolari eskaini dioten denbora eta talentua aitortu zien. Floren Nazabali ohorezko izendapena "bere bizitza guztiari kirolari eskaini izateagatik" izan dela azaldu zuen presidentek, "horren gurea den kirol bati, gainera". Bestalde, Alex Mariñelarenari "ezbeharrak gainditzeko izan duen jarrera bikaina" aitortuzion Barcos presidentek, "guztiok

harrotasunez bete gaituena".

2014ko otsailean Motoziklismo Mundialeko Moto2 mailan aritzeko Tech3 eskuderia frantziarrarekin Paul Ricard zirkuituan entrenatzen ari zela istripu gogorra izan zuen Mariñelarenak. Medikuek gomendatuta motoan lehiatzeari utzi dio, lehiari aritzeko ezgaitasuna duela esan baitiote. Istripu txikiena izanda ere, horrek kalte larriak eragin diezazkioke eta

horren aurrean motoziklismoa utzi behar izan du. Bestalde, Nazabalek agur esan behar izan dio bere ibilbideari, disko-herniak sortzen dizkion arazoengatik. Bere palmarek zabalean Euskal Herriko maila nagusiko 6 txapela ditu, Nafarroako lehen mailako 9 txapela, Nafarroako Bikotekako 8 txapela, Banakako Urrezko Aizkolarien 9 txapela eta Bikotekako Urrezko Aizkolarien 3 txapela.

Pilota



Ezkurdiak eta Zubietak galduz ekin diote Binakakoari

Binakako Txapelketako lehen jardunaldia galdu egin zuten txapelketan ari diren bi pilotari sakandarrek. Partida oso gogorrean, Ezkurdiak eta Barriolak ia irabazita zuten puntua alperrik galtzen utzi zuten. 17 eta 8ko errenta izan zuten bere alde, baina Artolak eta Albisuk partida irauli zuten eta 21era berdindu zuten. Azkentandoan, Ezkurdiaren boleatxapara joan zen eta lehen puntua lortu zuten Artolak eta Albisuk. Bestalde, 19 urteko Iribarriari eta Aitor Zubietari 22 eta 17 irabazizienten Irujok eta Rezustak. Hasiera bikaina egin zuten irabazleek, 11 eta 4 aurreratu baitziren, baina ondoren gora egin zuten Iribarriak eta Zubietak eta partida parekatu zen. Galduta ere, pozik azaldu ziren. "Kondenatu gaituzten hainbat akats egin ditugu. Ez dugu puntua lortu baina tanto dezente egin ditugu eta sentazio onekin goaz" azaldu zuen Iribarriak. Asteburuan bigarren jardunaldia dute jokoan.

Pilota

Iñigo Aritzako txapelaldunak

Iñigo Aritza Pilota Txapelketako finalak:

LH 3: Hodei Ulaiar 7 - Aimar Igoa 18
LH 4: Oier Mitxelena 9 - Patxi Azpeitia 18
LH 5: Iker Agudelo 18 - Aimar Gracia 5
LH 6: Aritz San Roman 11 - Lander Peral 18
DBH 1: Angel Vergara 18 - Jokin Senar 9
DBH 2: Oier Berastegi 13 - Izadi Reparaz 18

Iñigo Aritza ikastolako Pilota Txapelketako finalak azaroaren 29an jokatu ziren, Burunda pilotalekuan. Ikastolako 46 ikaslek hartu dute parte ikastolak pilota sustatzeko antolatzen duen txapelketan. Finalean primerako giroa izan zen eta finalistek euren txapelak eta dominak pozik jaso zituzten.



Iñigo Aritza Pilota Txapelketako finalistak, trofeo eta oroigarriekin.

Binakako Txapelketako 2. jardunaldia

Ezkurdia-Barriola / Altuna III.a - Merino II.a (Gaur, Donostian, 20:00etan, ETB1, ntb)
Bengoetxea VI.a - Untoria / Irujo - Rezusta (Bihar, Iruñean, 18:00etan, ETB1, ntb)
Olaizola II.a - Urrutikoetxea / Artola - Albisu (Igandean, Urretxun, 17:00etan, ETB1, ntb)
Berasaluze II.a - Beroiz / Iribarria - Zubietak (Astelehenean, Tolosan, 16:30etan)

Ostiralero
SAIOA
9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Asteleheneetik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara

Esataria: Eneida

Gaurko gaiak:

- Irurtzungo Euskal Ekitaldiak
- Altsasuko Euskararen Eguna
- Altsasu Memoriaren erakusketa

107.3 FM
beleixe
www.guaixe.eus-en ON LINE

Pala



I. Gure Pilota Pala Torneoa: 2. jardunaldia jokoan

I. jardunaldiko emaitzak:

Benjaminak (larunbatean, 18:00etan): Miren-Ane **10** / Eider-Julene **18** Auritze-Olaia **18** / Haizea-Maialen **8**

Haurrak: A taldea: Maddi-Maitena **15** / Luzia-June **25**

Promozio maila: Murillo-Gabirondo **30** / Goikoetxea-Lasa **23** Murua-Ardanz **12** / Arrizabalaga-Parot **30**

Elite maila: Garmendia-R. de Larramendi **30** / Mendizabal-Irazustabarrena **18** Martin-Huizi **28** / Araiztegi-Bordagaray **30**

Aurreko astean hasi zen Nafarroako Pilota Federazioak Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzua-ren, Gure Pilota klubaren eta Etxarri Aranazko eta Arbizuko udalen laguntzarekin antolatutako Emakumeen I. Gure Pilota Sakanako Pala Torneoa. Benjamin, haur, kadete, promozio eta elite mailatan jokatzeko ari da txapelketa. Asteburu honetan 2. jardunaldia dago jokoan.

Xakea

Xakearekin hitzordua

Sakanako XVI. Xake Txapelketa jokatu da bihar Hiriberrin

Sakanako Mankomunitateak urtero abenduan antolatzen du xake txapelketa. Bihar jokatu da Sakanako XVI. Xake Txapelketa, larunbatearekin, Hiriberriko Txitera elkartean, goizeko 10:00etatik hasita. Txapelketa, aldi berean, 1.800 ELO puntutik beherako Nafarroako Txapelketa izanen da.

Txapelketaren metodologiari dagokionez, 20 minutuko 8 partidara jokatu dira. Helduen mailan eta 16 urtez azpikoen mailan, lehenengo hirurek saria jasoko dute.

Aurreko urtean Arruazun jokatu zen Sakanako Xake Txapelketa. 23 xakelarik eman zuten izena. Gehienak Iruñerrikoak ziren, baina gipuzkoarrak eta galiziar bat ere bazeuden tartean. Txapelketa Javier Cinza galiziarra izan zen (Orvina), Maria Goñi eta Javier Lasa xakelarien aurretik. Lau sakandar lehiatu ziren eta Cesar Razkin etxarria-



Aurreko urtean Arruazuko ostatuan jokatu zen Sakanako Xake Txapelketa.

rra izan zen onena, txapelketan 8.a sailkatu eta gero. 16 urtez azpiko kategorian Ivan Iturralde izan zen onena.

Izena emateko

Bihar, Hiriberriko Txitera elkartean, goizeko 9:30etik aurrera (5 euro).

Herri kirolak

Sakanako Herri Kirol Jardunaldiaren txanda

Igandean, 12:00etan, Etxarrenen

Urte bukaerako beste klasiko bat Sakanako Mankomunitateak antolatutako Sakanako Herri Kirol Jardunaldia da. Igandean ospatuko da, 12:00etan, Etxarrenen Aranburu pilotalekuan. Antolakuntza lanetarako Arakilgo Udalaren eta Sakanako herri kirolarien laguntza izan du Mank-ek.

Urtero moduan, Sakanako Aizkora Eskolako aizkolariak, Sakanako aizkolariak, Sakanako harri jasotze eskolako kirolariak eta Sakanako trontzalariak eta tira-tzaileak ari dira. Ekitaldia Sakanako eskoletan egindako lana erakusteko erakuslehoi aparta da, herri kirolari sakandarren arteko desafioez gozatzeko

Aurreko urteko jardunaldian



Erdoziatarra, hiru belaunaldi, aurreko urtean Bakaikun ospatutako jardunaldian.

omenaldi beroa egin zieten Sakanako herri kirolari eta bereziki aizkora sustatu duten 5 aizkolari beterrano sakandarrei: aurreko urte-

an zendutako Jose Inazio "Axio" Flores, Juanito Erdoziari, Juan Mari Nazabali eta Manolo eta Jaime Gorritiri.

Pilota

Bakaikoa eta Lasa Nafarroako txapelkunordeak

Nafarroako Senior Mailako Pilota Txapelketako finala galdu zuten etxarriarrek, Yoldi-Linzoainen kontra (22 eta 10)

Larunbatean Lehen Mailako Nafarroako Senior Mailako Pilota Txapelketako finala jokatu ziren Iruñeko Labrit pilotalekuan. Banakakoan Irurtzun klubeko Armendarizek 18 eta 3 irabazi zion Uharte Iruñeko Astiz, txapela Irurtzunera ekarri.

Baina Binakakoan txapelak alde egin zuen Sakanatik. Erreka klubean dabilzan Bakaikoari eta Lasari 22 eta 10 irazi zieten Uharte Iruñeko Yoldik eta Linzoainek.

PEÑAS TXAPELDUN

Bigarren mailan, buruz buruko txapela Altsasura etorri zen, Altsasu taldeko Peñasek 18 eta 15 irabazi baitzion Bortziriak taldeko Elizalderi. Binakako txapela, aldiz, Bortzirietara joan zen, Errandoneak eta Martinezek 22 eta 20 gailendu baitzituzten Altsasuko Aiestaran eta Lasa.



Gabonetako eskaintza berezia

- Skeyndor eta Germaine De Capuccini loteak
- Opari txartelak

Amaia Benjumea

649 444 018 · abenjumo@hotmail.com
Nagusia, 12-1. B · Etxarri Aranatz



Nonerabili

IL PADRINO

ALTSASU

Eguneko menuan txupittoa doan.

VALCARCE

OLAZTI

0'06 €ko deskontua litroko, erregai guzietan.

EDERNE

ILEAPAINDEGIA

LAKUNTZA

30 €ko gastuarekin bibotea depilatzea doan. Ileapaindegiko zerbitzuekin, maki-laje ukitua doan.

GK

%5eko deskontua argitalpen eta diseinu zerbitzuetan.

XAGU

ALTSASU

% 5eko deskontua, 30 €tik gorako erosketa eginez gero.

LIBURUNDA

ALTSASU

%5eko deskontua papertegian.

GOIKO LOREDENDA

ALTSASU

30 €tik gorako erosketetan landare bat opari (Eskaintza ez metagarria).

MARI JOSE

ILEAPAINDEGIA

ARBIZU

Garbitu, moztu eta apaindu 26 €.

FRUITIS FRUTA DENDA

IRURTZUN

%10eko deskontua fruitu tropikaletan.

EROSKI BIDAIK

ALTSASU

%5eko beherapena, hiri hotelako eta garraio hutsen erreserbak izanez. Eskaintza ez metagarria.



NAFARROAKO KUTXA HIZKETA-GAI: *Can, hemen ez da ezer gertatu* liburua argitaratu du Joxerra Senarek. Kazetaria astelehenean, 19:00etan, Etxarri Aranzko kultur etxean izanen da argibideak ematen.

kultura >>

Motxila 21en jaialdi handia

Hainbat rock musikari ezagunek taldearekin joko dute Iruñean abenduaren 12an. Sarrerak agortu dira

Nafarroako Down Syndrome Elkartearen 25. urteurrenaren ospakizunen barruan, elkarteko kide eta laguntzaileek osatutako Motxila 21 taldearen kontzertua antolatu dute. 10 urte ditu taldeak eta 25 bat musikari eta kolaboratzaile osatzen dute; haien artean daude Aintzane (saxofoia) eta Ainhoa Lizarraga (akordeoia) dorro-



barrak. Biharko kontzertuan Fito, Gari, Jesus Cifuentes (Celtas Cortos), Fermin Muguruza, El Drogas, Kutxi Romero eta Fermin Goñirekin batera kantatuko dute. Javier Coronasek aurkeztuko du jaialdi berezia.

Bestalde, 2013ko agorrilean taldeak Londonen egindako biraren testigantza jasotzen duen dokumentala ostegunean, 20:00etan, Iruñeko Golem zineman aurkeztuko dute. Aste batez izanen da ikusgai.



Musikaren historiaren errepasso azkarra 24 sokarekin

Ryma, gitarra laukotea larunbatean, 19:45ean Etxarri Aranzko Gure Ametsa jubilatuko elkartearen, doan

RYMA gitarra laukotea Raquel Perezek, Yoana Canterok, Mikel Auzmendik eta Ander Percezek osatzen dute. Bakoitzaren izenaren lehen hizkiarekin osatu dute laukotearen izena. Irailean sortu zen taldea, Auzmendik azaldu digunez, "gitarra klasikoko laukoterako errepertorio originalak eta transkripzioak jotzeko asmoz". Lau gitarren eta haien 24 soken laguntzaz, Etxarri Aranzkoen hainbat estilotako musika joko dute bihar. Kontzertua musika historiaren eta estiloen errepasso motz eta azkar bat izanen dela iragarri digu gitarra-jole etxarriarrak.

+www.guaixe.eus

Egitaraua

Vivaldi Sol Minorreko RV85 Sonataren transkripzioa 3 mugimendutan: **Andante Molto, Largo-hetto eta Allegro**
Anjel Unzu Señor Pascoal
Andrew York Bantú
Andrew York Quiccam

Patxi Zubizarretarekin bere bi liburuz hizketatzeko gonbitea

Ostegunean, abenduaren 17an, 9:30ean, Altsasuko Iortia Kultur gunean idazlearen Hiru gutun Iruñetik (Pamiela, 2012) eta Emakume sugaeren misterioa (Alberdania, 1993) liburuez ariko dira

Urtero moduan, Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak eta AEK-ko Itsasi euskaltegiak literatura solasaldia antolatu dute. Euskaraz

idazten duen idazle baten obra aukeratu, hura irakurtzeko gonbitea luzatu eta harekin elkartzean idazlearen eta irakurlearen arteko iritzi eta inpresio trukea sustatu nahi du solasaldi horrek. Euskaltegiako ikasleak, Mintzaki-de programako kideak eta nahi duten sakandar guztiak daude Patxi Zubizarretarekin izanen den solasaldira gonbidatuta.

Arakilgo udazkenak badu bere argazkia



Arakilgo Udaleko Kultura Zerbitzuak, Arakil Kulturak, antolatutako udazkeneko argazki lehiaketak badiu sarituak. Epailerek Eduardo Uharteren argazkiaren alde egin zuten. Hiriberriko Arizabaetik ibarra lainopean dela, Gaztelu, Bizkai eta Elomendi ikus daitezke argazki horretan. 150 euroko saria eskuratu du Uhartek. Herri bozketa ere egin zen eta arakildarrek Ander Otxoaren *Gau itoa*

izeneko argazkia aukeratu zuten. Errotzen ibai ondoan gauean egindako argazki ikusgarria hori ere. Lehiaketara 27 argazki aurkeztu ziren.

Sariak larunbatean banatu ziren, agendako egun musikatuaren barruan. Izan ere, lehenik Arturo Kanpion abesbatzak Hiriberriko elizan abestu zuen. Ondorengo otamenean egin zen sari banaketa eta Txitera elkartetik aterabete herri bazkaria izan zen.

Kinada zuzenean

Larunbatean, 20:00etan, Irurtzango Pikuxar euskal txokoan, Euskal Ekitaldien barruan



Aizpeak, Irurtzango euskaltzaleen topaguneak antolatutako Euskal Ekitaldien barruan Kinada taldeak kontzertua eskainiko du bihar. Txantrean sortutako taldea 2013tik ari da estilo intimistako kantuak rockarekin

uztartzen; "kantu bakoitzean emaitza desberdinak eskaintzen ditu nahasketa horrek". Oihanek (gitarra eta koroak), Xubek (ahotsa), Gorkak (bateria), eta Mirenek (gitarra eta koroak) osatzen dute taldea. +www.guaixe.eus

bazterretik

Jose Luis Asensio

Kawaii metal

Olentzero gertu etorriko da, eta arruntena berriro ere komikien inguruan gomendioak egitea izango litzateke, baina ezin izan dut Japoniako kulturaren inguruan dabilzan zenbait bitxikeriaren berri izan dut, eta nola ez, zuei kontatu behar.

Aspaldidanik dute 'idol' fenomenoak Japonian. Hau da, abeslari bat edo musikatalde bat miretsi, eta beraien jarraitzaile amorratuak bihurtu. Erljio baten moduko fasea pasa behar dutela dirudi. Noizbait, japoniar guztiak honelako pertsonaia bat miretsi behar dutela esan nahi dut, alegia. Kontzertuetara joan, 'merchandising' guztia erosi, non

dabilen jakinda hara joan ikusteko aukera izateko...

Musika abeslari famatu gehienak pop abeslariak dira. Erraz asko ikastendiren kantak (likatsuak), dantza erraz eta xaloak... tira, askotan hemen entzun ditugun 'Asereje' edo 'Macarena' abestietatik oso urrun. Baina azken aldi honetan, fenomeno hau heavy musikarekin ere nahastuz joan da, eta 'kawaii metal' izeneko generoa indarrez iritsi zaigu globalizazioari esker. Metal edo musika estilo oraindik ilunagoak, janzkera viktoriarrez lagunduta eta askotan frikismo arraroenarekin nahastuta sortu egin da generoa.

Talde ugari izanda, batzuk seriozki dabilta musika landuz eta gene-

ro berri honekin lanean, hala nola 'Band-maid', bost emakumez osatutako taldea, 2013. urtean jaio eta gogoz dabilzanak beraien janzkera viktoriarrekin musika polita egiten. Baina beste batzuk, arrakasta lortu dezaketela ikusita, generoa berdindizanda diru bila dabilta, eta baita lortu ere. Ladybeard izandaiteste talde frikiena, non Australiatik iritsi zen borrokalaria bat dugun protagonista. Jakin, borrokalaria bezala, gezurretako borroketan aritzen zela emakumez jantzita, eta ospea izan ondoren, musikan ere saiatu da beste bi neskatxeekin. Eta erdian, Ladybaby bezalako taldeak daude, hiru emakumez osaturiko talde komertziala, 'idol' fenomenoaren adibide argi bat. Hiru da

talde komertzialen zenbaki miragarria, abeslari bat eta bi dantzari koroak egiteko. Beraien letrak ere argi uzten dute beraien seriotasuna. Beraien abesti famatuena, 'Gimi Choko!!!' honela dio: *Emaidazu txokolatea! Txokolate pixka bat jan dezaket? Baina nire pisuak pixka bat arduratzen nau gaur egun. Berdin du, txokolatea. Pixka bat jan dezaket? Baina itxaron... itxaron, itxaron, itxaron*

Dena metal musika atzetik entzuten dela eta estetika ilun baina aldi berean xamur batez mozorrotuta. Kasu hauetan gehien harrizten nauena, beraien bideoak ikustean, kontzertuetara doan jendearen joe-



ra da, hala ere. Zer esan nahi dudan ulertzeko, ikusi behar. Gure ikuspuntutik, argi dago japoniarrak erotuta daudela.

G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 8%	euria: 5%	euria: 5%	euria: 15%	euria: 20%	euria: 20%	euria: 25%
Min: 4 Max: 12	Min: 3 Max: 11	Min: 4 Max: 10	Min: 5 Max: 9	Min: 6 Max: 11	Min: 7 Max: 12	Min: 7 Max: 12

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	16.5	-1	0.5
Etxarri A.	14.9	-1.9	0.7
Altsasu	15	-3.5	1.6
Aralar	10.2	2.7	3.9
Urbasa	15	-3	0.4

: ilargiaren aldia >>

ilberri	ilgora	ilbete	ilbehera
11	18	25	2

EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor
SISTEMA
BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE


Bazkide sarituak

- 1.- Pilar Irastorza Arruabarrena**
(Hiriberri)
- 2.- Fermin Garde Etaio**
(Urdiain)
- 3.- Mari Nieves Jarones Santa**
(Altsasu)
- 4.- Manu Askargorta Agirre**
(Olazti)

>> 11 galdera

Mar Gonzalez Ruiz de Larramendi
Argazkilaria

Testua: Larraitz Amadoz Lazkano



uharte arakil

anzolanen

Guaixe KOMUNIKAZIOA

948 564 275 argi@guaixe.eus

UDAL BULETINAK

herritarrengandik hurbil

1. Nola barneratu zinen argazkilaritzaren munduan?

Txiki txikitatik izan dut gustukoa. Nire izebak nire lehen kamera elektronikoa eman zidan eta harez geroztik leku guztietara eraman dut. Pauso handiena izebak bere Reflex zaharra oparitu zidanean eman nuen. Beste argazki mota batzuk atera ditzakezu, fokoa aldatu daiteke, eta beste aukera batzuk ematen dizkizu. Momentu hori niretzat oso garrantzitsua izan zen, argazkilaritza asko gustatzen zitzaidala konturatu nintzelako. Irudia beti gustatu izan zait, batez ere zinema; txikitatik nire pasio handienetako bat izan da.

2. Zein da gustuko duzun argazkilaritza mota?

Hasiera batean paisaiak hartzen nituen bakarrik, leku ederrak, loreak... ez duzu baimenik eskatu behar argazki horiek ateratzeko. Erretratu bat ateratzeko, adibidez, norbaiten baimena behar duzu, pertsona horrekin eseri eta argi mota bilatu, ezberdina da. Oraingustukoendudana bat-batekotasuna da, kalean joan, irudi bat ikusi eta hori hartzea. Ez duzu irudi bat bilatzen, bakarrik agertzen dira argazki horiek. Erretratuak ateratzea asko gustatzen zait, eta bilakaera batez ere jendeari baimena eskatzean nabaritu dut.

3. Argazkilaritza zure lanbide bihurtzea gustatuko litzaizuke?

Pila bat, hori oso ziur dudana ez da. Oso zaila da, argazkilaria asko daude munduan. Interneten

argazki ederrak egiten dituen jende asko topatzen duzu.

4. Ikaslea zara. Zein ikasketak?

Ikusentzunezko Komunikazioa eta Hispaniar Filologia egiten ari naiz aldi berean. Zinema oso gustuko dut, eta horrek bultzatu ninduen erabakia hartzera.

5. Zein izanen litzateke zure ametsetako argazkia?

Lekuak eskaintzen dizkizun aukerak probestu behar dira. Ez dut asko pentsatzen hartu nahi dudana argazkian, lekua bilatzen dut, baina gero han bertan ez dakit inoiz zer atera daitekeen. Munduko toki desberdinetako argazki oso politik ikusten ditut, eta horren bidez bidaiatzeko gogo handia sortzen zait, irudi bikainak hartu daitezkeelako. Finean, munduak ematen dizu eskatzen duzun argazkia.

6. Zuk ateratako argazki kuttunik?

New Yorkeko Central Station geltoki ospetsuan beste garai batekoa zirudien gizon bat zegoen. Kamera zahar bat zuen eskuan, eta argazkiak ateratzen zituen diruaren truke eta negatibo zaharrak banatzen zituen. Posizio berezia hartu zuen eta irrifarre eginenez argazkia ateratzeko baimena eman zidan. Argazki hori oso polita da, baina batez ere une hori izan zen berezia.

7. Miresten duzun argazkilaririk?

Cartier Bresson argazkilaria oso ezaguna da, onenarikoa eta berak asko jorratzen zuen bat-bateko

argazkilaritza. Bere argazkietan, ezagutzen duzun leku bat beste toki bat dirudi eta hori oso berezia iruditzen zait. Aurten ere Salgadori buruzko dokumental bat agertzen eta bere lana ere oso gustuko dut.

8. Nola erabaki zenuen Guaixeko lehiaketan parte hartzea?

Nire amak bultzatu ninduen parte hartzera. Berak badaki egun osoa argazkiak ateratzen ibiltzen naizela eta animatu ninduen.

9. Aurkeztu eta irabazi. Zergatik aukeratu zenuen Miarritzeko hondartzako argazkia?

Hondartzan ibiltzen ari ginela, emakume bat ikusi nuen bertan, guardasola batekin irakurtzen ari zen. Irudia bitxia iruditu zitzaidan, Euskal Herriko udak badakigu batzuetan oso eguzkitsua ez direla izaten, eta argazki horrek hori islatzen zuen.

10. Zer sentitu zenuen lehiaketa irabazi zenuenean?

Asko, asko poztu nintzen. Izugarriko ilusioa egin zidan eta gainera ez nuen espero.

11. Nola bizi izan duzu saria, Turkiako bidaiak?

Bizitzako esperientzia berezienetako bat izan da. Aste bat izan da eta kurtsoaren erdian, baina ezin hobea izan da bidaiak. Oso herrialde ezberdina da, kultura aldaketa handia ikusi dut, Islam kantuekin esnatzen zara eta joko handia ematen du horrek, batez ere argazkiak ateratzeko.